

ezagutzen al  
duzu Donostia?


## Ubegi

Altzako herriaren parte izan zen *Ubei* edo *Ubegi* baserri ederra. *Ametzagaña* mendixkaren hegoaldeko egian kokatzen da, eguteraan, nekazaritzarako ezin hobeak diren lurrez inguratuta. Horrelako paraje erosoak gure lurreko historian antzinatik, beti, eskatuak izan dira eta arrazoi horrexegatik etxe zahar eta onak leku horietan aurkitzen dira. Hauetako bat da *Ubegi*, XVI. mendeko etxe aparta, karratua eta lau uretako teilatu batez estalia. Jauregi baten itxura eta edertasuna ditu. Gaur bi bizitzetan zatitua dagoen baserri honen zurezko egiturak mirariz gaurdaino iraun du; hainbat gerra, ekaitz eta sutetik salbatu egin da. Bere barnealdeak



Ubegi baserriaren hegoaldeko aurrealdea.

Egituraren xehetasunak.



gotiko garaiko tolareraren baten hainbat aztarna mantentzen ditu oraindik. Tolare haiek etxe osoaren zurezko egiturarekin osatzen ziren: bi habe zutika-

koen artean hamabi metroko luzerako beste enbor edo haga handi bat lotzen zen. Haga hau zazpi edo zortzi metroko luzera zuen ardatz batekin

mugitzen zen, honela hagak mandioan, tolareraren askan, pilotzen zen sagarra zapaltzen zuelarik.

TESTUA ETA ARGAZKIA: JOSU TELLABIDE

# BILINTX

PAPER-DENDA



IGANDE  
ETA  
JAIEGUNETAN  
ZABALIK

- AGENDAK
- KARTAPAZIOAK
- ESFERAK
- KLASIFIKADOREAK
- MOTXILAK
- ETA BESTE ZENBAIT ARTIKULUETAN...

FERMIN KALBETON, 30 - DONOSTIA - TFNOA.: 420930